

1

“Bazen behin... Ez. Baziren behin bi pertsona nazkagarri, hinguigarri, arbuiagarri, desleial.”

Beirek paper zuri batean okatu zituen amorruek eragiten zizkion minak. Karrek bidalitako argazkia ikusteak botagura eragin zion. Lete eta Baba elkarrekin. Noiztik? Zergatik? Ezin zuen sinetsi. Baba boxeo jaialdian ez egoteak eta bere hitza ez betetzeak min egin zion, baina, azken batean, hura ezezaguna zuen. Leterena oso bestelako kontua zen. Ustez bere lagun mina. Ustez bere konfiantzazko laguna. Ustez inoiz engainatuko ez zuen adiskidea. Ustez. Usteak erdia ustel esan ohi da, eta une hartan horixe zen Beirek pentsatzen zuena. Ezin zela inorekin fidatu. Bizitzan kaka zaharra besterik ez zegoela. Ezertarako gogorik gabe zegoen, inor ikusteko gogorik gabe, ezer egiteko, inora ateratzeko gogorik gabe. Negar ere ez zuen egin. Ez zien plazer hori eman nahi bi mutilei. Bere bizitzan horren inportanteak ez zirela adieraziko zien, ez zeukala haien beharrik. Bera, Beire, nahikoa indartsu zela edozeri aurre egiteko. Bere barruan negar zotinka ari zen ume txikia zegoen arren, kanpora begira Beirek betikoa izan nahi zuen, betikoa izaten jarraitzen zuela azaldu. Lady Beire. Bere larruzko txuparekin. Bere ohiko indarrarekin. Babak eta Letek ez zuten argazkien berri. Ez zekiten

Beire haien arteko harremanaren jakitun zela, eta neskak ez zuen asmorik ezer esateko. Momentuz ez behintzat. Azazkalak horrenbeste jatearen ondorioz hatzak txikituta zituen, odoletan, minez. Komunera joan zen, botika hartu zuen hatzetan jartzeko eta etxetik atera zen, eskolara bidean.

–Ikusi al dituzu argazkiak? –gelan sartu orduko gerturatu zitzaion Kar Beireri.

–Bai –lehor, neskak.

–Eta? Zerbait esango al diozu Leteri?

–Esan? Zergatik? Horren inportantea dela uste al duzu? Bakoitzak erabaki dezala noren alde dagoen. Edo noren kontra

–Beire barruan zeukan mina disimulatzen saiatu zen Karren aurrean.

–Nik uste nuen...

–Usteak erdia ustel, Kar –azpimarratu zuen Beirek.

–Bonba bat da –esan zuen Karrek.

–Ez zenituen igoko argazkiak instagramera? –beldurtu zen Beire.

–Oraindik ez. Baina igotzen ditudanean bonba bat izango da, kar kar kar!

–Ez igo –agindu zion Beirek.

–Zer?

–Argazki horiek ez jartzeko sare sozialetan.

–Zergatik ez? –harrituta, mutilak.

–Nik esaten dudalako.

Eta Beirek beldurra ematen zuen begirada eskaini zion Karri. Momentuz mutilak ezin zuen ezer egin. Bazekien argazki haiek argitaratzen bazituen Beire asko haserretuko zela. Bazekien argazkiak publikatuz gero Beire kontra izango zuela. Baina, bestetik, irrikaz zegoen albiste hura emateko. Inork espero ez zuena. Teorian bi talde ezberdinetako arerioak zirenen arteko adiskidetasuna. Ikaragarri tentatzen zuen notizia emateak. Argazki bidez gainera. Baina ezin zuen. Momentuz. Lete sartu zen une hartan, eta zuzenean gerturatu zen Sua taldeko kideengana.

–Aupa! –agurtu zituen.

–Crack! –esan zion Karrek bostekoa ematen zion bitartean, Letek oso ongi ulertu gabe. Beirek oinaz ostikoa eman zion Karri.

–Ondo egingo zenuen lo garaipenaren ostean, ezta Beire?
–jakin nahi izan zuen Letek.

–Primeran egin dut lo, bai.

–Pozten naiz aurten ere zeu izateaz gelako ordezkaria –berretsi zuen Letek.

–Ikasturte interesgarria izango da, bai –esan zuen, ironiaz, neskak. Kar barrez hasi zen eta mugikorrean zerbeit barregarria ikusi izan balu bezala disimulatu zuen.

Baba sartu zen gelan Linda eta Beyoncerekin. Sua taldekoen ondotik pasa zirenean, inork ez zuen inor agurtu; bakoitza bere lekuan eseri zen, irakaslea sartu zelako une berean, baina Beireri iruditu zitzaion Letek eta Babak begirada gurutzatu zutela. Agian bere irudipena izan zen, besterik gabe. Nahikoa lan

izango zuen kurtso hartan errealitatea eta mamuak bereizten. Argi zeukan bakarra zen bakoitza bere lekuan jarriko zuela. Kosta ahala kosta.

Beirek ezin zuen burutik kendu argazkia: Baba eta Lete elkarrekin. Nola hasi ziren harremanetan? Zertarako? Une batez pentsatu zuen agian Leteren estrategia bat izango zela, Babak nondik jotzen zuen jakin eta gero informazioa beraiei pasatzeko. Izan zitekeen. Akaso Beire gaizki pentsatzen hasia zen eta guztiz kontrakoa zen Leteren asmoa. Denbora eman beharko zion dena argitzeko. Lasaitu egin zen. Traizioa ez baizik leialtasuna izan zitekeela jakiteak mina baretu zion Beireri, eta irribarre egin zion Leteri. Ordura arte egiten egon zen marrazkia erakutsi zion mutilak: eskularru beltzak. Zer esan nahi zion? Zer zela eta marraztu zituen eskularru beltz haiek?

–Zeu ere boxeoan hasi behar al zara? –galdetu zion zuze-nean, atsedean ordua iritsi orduko.

–Eskularru beltzak omen da Baba eta horiek euren taldeari jarri dioten izena –argitu zion ilea rapatuta zuen gazteak.

–Eta zuk nola dakizu? –galdetu zuen Beirek, pentsatuz une hartan ari zela argitzen bi mutilak hondartzan elkartzearen kontua.

–Bakoitzak txapa bana dauka. Ez al dituzu ikusi? –azaldu zion Letek.

Beirek “besteak” zeuden alderantz begiratu zuen. Egia zen Babak, Lindak eta Beyoncek txapa bana zutela bularraldean, baina distantzia hartatik ezin zuen irakurri bertan jartzen zuena.

–Ez dut ezer ikusten –esan zuen Beirek azazkalak jaten zituen bitartean.

Kar bere funtzioa betetzera joan zen. Mugikorra eskuan, argazkiak ateratzen hasi zen alderik alde, baita Linda eta bere lagunei ere. Beire eta Leterengana itzuli zenean, argazki mordoxka bat zuen eta argazki haietan ondo ikus zitekeen Letek zioena egia zela. Txapetan Eskularru beltzak jartzen zuen.

–Ba! –bota zuen Beirek mespretxuz–. Askoz hobea da gure izena: sua. Indar gehiago dauka.

–Dudarik gabe –azpimarratu nahi izan zuen Karrek, begiak mugikorretik altxatu gabe, lanpetuegia baitzegoen atera berri zituen erretratuak instagramera igotzen.

–Borrokarako gogoa azaltzen dute –esan zuen Letek.

–Borroka? Noren kontra? –harritu zen Beire.

–Bizitzaren kontra, agian –aipatu zuen Letek.

–Hara gure filosofoa! –ironiaz, Beirek.

–Babak horixe esan izan du askotan, boxeo delat modu bat bizitzan borrokatu ahal izateko.

–Borroka nahi badute, borroka izango dute –egin zuen amenazu neskak, larruzko txuparen mangak altxatuz.

–Nik ez dut esan gure aurka borrokatu nahi dutenik, Beire.

–Baina nik badut borrokarako gogoa. Eskularru beltzak izena jartzea oso esanguratsua izan da. Probokazio bat.

–Ez exajeratu –saiatu zen lasaitzen Lete.

–Gurekin zaude ala beraiekin? –galdetu zion zuzenean, eserita zegoen mutilaren aurrean zutik jarritz, gogor begira.

Lete altxatu egin zen. Begirada zorrotza itzuli zion Beireri, eta pare bat segundo egon ziren bata besteari begira.

–Ni beti zure ondoan, Beire –esan zuen azkenean. Karrek barre egin zuen, urduri.

Sua taldeko hiru kideak patioan zehar abiatu ziren, burua tente, institutu osoari azalduz eurak zirela boterea zutenak.

–Hor do-doaz –esan zuen Lindak hirukotea pasatzen ikusi zuenean.

–Harro hutsak dira –deskribatu zituen Beyoncek.

Baba isilik geratu zen. Une hartan ez zeukan berriketarako gogorik. Momentu hartan ez zitzaion batere inporta eskola hartako egoera. Sua taldekoak erabat indiferenteak ziren boxeolariarentzat. Handik joateko gogoa zeukan, ihes egiteko. Bazuen bere barruan halako kontraesan bat: alde batetik, familia bat izateko irrikaz bizi zen. Talde baten parte izateko beharra izaten zuen. Besteek onartzen zutela, besteen berdina zela ikusteak ziurtasuna ematen zion. Hori zen bilatzen zuena: bat gehiago izatea talde baten baitan. Baina, beste alde batetik, bakardadea gustatzen zitzaion. Desberdina zela sentitzen zuen eta ezberdin izate horretan uste zuen zegoela bere indargunea. Deseroso sentitzen zen sentimendu kontrajarri horiekin. Ikasturte hura oso berezia zela bazekien. Bazuen familia bat: Lindarena. Bazuen talde bat: Linda eta Beyonce. Estimatu sentitzen zen eta oso argi zeukan jasotzen zuen guztia emango ziela bueltan bi lagun